"REEBOK -Irailaren 13an Donostiako Kursaalen egingo den ekitaldia"

Mesedez, irakurri arretaz baldintzak hauek, informazio garrantzitsua baitute. Baldintzak onartzea derrigorrezkoa da sustapen honetan parte hartzeko, parte-hartze hutsarekin onartzen baituzu legez horien mende egongo zarela. Antolatzaileak eskubidea du partaideak edota irabazleak kanpoan uzteko, jarraian xehatzen diren baldintzetakoren bat betetzen ez badute.

1. ANTOLATZAILEA

Adidas España SAU da antolatzailea. Enpresa horrek esklusiban merkaturatu eta banatzen ditu Reebok produktuak (aurrerantzean, Reebok), IFK A-28788909 du, eta helbidea, berriz, hemen: María Zambrano 31, Edificio WTC Torre este, 6ª planta, 50018 Zaragoza.

2. PARTE HARTZAILEAK

16 urte baino gehiago dituzten, Espainiako lurraldean modu legalean bizi diren, Instagrameko kontuaren jarraitzaile diren, birbideratuko diren landing page orrian azalduko den galderari erantzuten dioten eta oinarri hauetan zehaztutako baldintzak betetzen dituzten pertsona guztiek parte hartu ahal izango dute.

(*) adingabeak diren parte-hartzaileek sustapen honetan parte hartzeko eta, garaile izanez gero, saria jaso ahal izateko gurasoen/legezko tutorearen behar bezalako baimena dutela bermatzen dute. Baimen hori frogagarria izango da edozein unetan Reebokek hala eskatuz gero.

3. IRAUPENA

Sustapen honen iraupena **2019ko irailaren 2tik 9ra bitartekoa** da.

4. PARTE HARTZEKO DINAMIKA

Sustapenean parte hartu nahi dutenek honako hauek bete beharko dituzte:

1. Forum Sporten Instagrameko jarraitzaile izan eta modu sortzaile eta berezian erantzun Reebokek egindako "ZER DA PAREGABE EGITEN ZAITUENA?" galderari. Galdera parte-hartzaileak birbideratuko diren landing page orrira sartutakoan azalduko da.
2. Parte hartu ahal izateko eskatutako datuekin formularioa bete.

5. SARIA

Honako hau izango da saria:

- 2019ko irailaren 13an, 18:30ean, Donostiako Kursaal jauregian egingo den Reebok ekitaldira joatea. SUCO SESSION izeneko bat egingo dute aurikularrekin eta horien bidez zehaztuko zaizkie musikarekin egin beharreko mugimenduak. Ondoren, FAMA A BAILAReko irakasleekin dantzako masterclass bat jasoko dute.
- Reebok elastiko bat.

Guztira, 70 sari banatuko dira.

Saria jasotzeko, ezinbestekoa izango da baldintza hauek betetzea:

- Parte-hartzaileek irudi-eskubideak lagatzeko dokumentu bat sinatu beharko dute. Izan ere, ekitaldia grabatu egingo da eta Forum Sporten eta Reeboken sare sozialen bidez eskaintzeko aukera egongo da. Dokumentu hori Reebokek banatuko du ekitaldia hasi aurretik.
- Erantzukizun zibila salbuesteko Reebokek banatuko duen dokumentua sinatu beharko dute.

<u>SARIAN EZ DIRA HAUEK SARTUTA EGONGO:</u>

- Garraioa.

- Ostatua.
- Otordua edo eskupekoak.
- Aipatutako horien artean ez dauden gastuak.

Saria Reebokek Espainian stockean dituen neurri eta produktuen eskuragarritasunaren mende egongo da. Sariari dagokion elastiko-modeloa Reeboken irizpideen arabera aukeratuko da eta, beraz, irabazleek ezingo dute ez kolorea, ez modeloa aukeratu. Horrez gain, Reebokek ez du ez aldaketarik, ez itzulketarik onartuko.

6. IRABAZLEEN AUKERAKETA

2019ko irailaren 10ean Reebokek izendatutako epaimahai batek 70 irabazleak aukeratuko ditu. Horrez gain, 10 ordezko ere hautatuko dituzte, badaezpada, irabazleek sariari uko egingo baliote edo saria onartzeko baldintzak betetzen ez balituzte, saridun izan daitezen.

Egun horretatik aurrera, Reebokeko ordezkariak irabazleekin jarriko dira harremanetan posta elektroniko edo telefono bidez.

Irabazleak aukeratzean, honako hau izango da bete beharreko irizpidea: **eskatutako datu guztiak bete izana eta galderari erantzun originalena eta sortzaileena ematea, Reeboken energiazko izaera erakutsiz.**

Irabazleek sariari uko egiten badiote edo frogatzen bada iruzurren bat egin dutela parte hartzean, saria lehen ordezkoari emango zaio eta horrela jokatuko da besteekin ere.

Irabazleek oinarri hauetan adierazitako baldintza guztiak betetzen ez badituzte, ez dute saria jasotzeko eskubiderik izango.

7. BERMEAK

Sustapen honetan parte hartuta, partaideek bermatzen dute Reeboki emandako datuak benetakoak direla eta hamasei urtetik gora dituztela.

---

8. ERANTZUKIZUNA MUGATZEA

Reebokek eta Forum Sportek ez dute haien gain hartuko sustapenean parte hartzearekin lotuta parte-hartzaileek sor ditzaketen kostu edo gastuen inguruko erantzukizunik. Internet erabiltzearen kostuak, edozein kasutan, parte-hartzaileen konturakoak izango dira.

Reebok ez da arduradun izango eta honako hauekin lotutako edozein erantzukizun baztertzen du: (i) parte-hartzea mugatu, atzeratu edo huts egitea eragin dezakeen sareko (kablea, Internet edo beste sare batzuk), informatikako ekipoko edo softwarearen etenaldiekin lotuta gerta daitekeen beste edozein, (ii) sarearen funtzionamenduarekin lotuta dagoen edozein eratako beste edozein arazo, (kablea, Internet edo beste sare bat), webgunekoa, hardwarekoa edo softwarekoa eta (iii) izaera pertsonaleko datuen tratamenduarekin edo izen-ematearekin sor daitezkeen akatsak (Reeboken arduragabekeria larria edo jokabide maltzurra gertatzen denean izan ezik).

Reebok eta Forum Sportek ez dute haien gain hartuko sustapenean eta parte-hartzaileek erabilitako teknologien artean (zentzu zabalenean) eta hardwarearen eta softwarearen konfigurazioan gerta daitekeen bateraezintasunen gaineko erantzukizunik.
Aplikagarria den legeak ahalbidetzen dion neurrian, ez Reebokek, ez Forum Sportek, ez eta sustapenean parte hartzen duten agentziek ez dute haien gain hartuko sustapenean parte hartzeak eragindako galeragatik edo kalteagatik inolako erantzukizunik.

Edozein arrazoi dela eta, sustapenak aurrez ikusitakoa ez den moduan aurrera egingo balu (epeak direla eta edo haren baldintzaren bat berrantolatu edo gutxitu behar izan dutelako), Reebokek erreserbatuta izango du sustapena baliogabetzeko, bertan behera uzteko, aldatzeko edo atzeratzeko eskubidea bere aldetik inolako erantzukizunik sortu gabe eta parte-hartzaileek kalte-ordaina jasotzeko eskubiderik izan gabe.

9. PARTAIDEAK KANPOAN UZTEA

Reebokek eta Forum Sportek eskubidea dute, hala erabakitzen dutenean, promozioaren funtzionamendua aldatzen saiatzen den edozein pertsona kanporatzeko; baita baldintza hauek betetzen ez dituelako Reebokek baliogabetzat jotako moduan jokatzen dutenak edo Reebokek kaltegarritzat duen jokabidea dutenak kanporatzeko ere.

Reebokek eta Forum Sportek eskubidea izango dute edozein partaide kanporatzeko, baldin eta susmoa badu ere joko zikina edo iruzurra egin dutela edo baldintza hauek urratu dituztela. Promozio honetan modu organizatuan eta taldean parte hartzea baldintza hauen urraketatzat hartuko da.

Partaideen erantzukizuna izango da legez parte har dezaketela ziurtatzea.

10. BALDINTZA OSAGARRIAK

11.1.- Ez da onartuko 16 urtetik beherako partaiderik.

11.2.- Reebokek saria eman gabe uzteko eskubidea izango du, uste badu parte-hartzaileek Reeboken balioak ez dituztela sinbolizatzen.

11.3- Sariak pertsonalak eta besterenezinak dira; hau da, datu pertsonalak Forum Sporten landing page delakoko inprimakian jasota eduki behar dira irabazle izateko eta ezingo du irabazlea inork ordeztu edozein direla ere inguruabarrak.

11.4.- Irabazleek ezingo dute saria ordezkatu, ez eta transferitu ere, eta ezingo dute dagokion zenbatekoa eskudirutan eskuratu.

11.5- Ezingo dute lehiaketa honetan parte hartu Reebokeko langileek (ez eta haien gertuko familiakoek eta familia unitateko kideek ere).

11.6- adidas España SAUk eta Forum Sportek eskubidea izango dute prentsan, irratian, telebistan, webguneetan edo beste edozein komunikabidetan lehiaketa honen emaitzak argitaratzeko.

11.7.- Reebokek eta Forum Sportek lehiaketako arauak eta parte-hartzearekin lotutako baldintzak edozein unetan aldatu ahal izango dituzte, edozein kausa dela eta beharrezkoa balitz.

11.8.- Partaideek hemen deskribatutako baldintzak betetzen ez badituzte, Reebokek eta Forum Sportek eta enpresa antolatzaileek aukera izango dute gehiegikeriak eta iruzurrak saihesteko neurriak hartzeko eta hemen zehaztutako baldintzak betetzen ez dituztenek ezingo dute sari-banaketan parte hartu.

11.9.- Instagram ez da lehiaketa honen babeslea, ez sustatzailea, ez eta antolatzailea ere, eta ez da lehiaketa ez Instagramekin, ez eta beste inolako sare sozialekin batera ere antolatu. Parte-hartzaileek jakin behar dute haien informazioa Reebooki eta Forum Sporti emango dietela, eta ez Instagrami. Partaideek emandako informazioa lehiaketaren xedeetarako bakarrik erabiliko da.

11.10.- Reebokek eta Forum Sportek salbuetsi egiten dute Instagram lehiaketarekin lotuta izan litezkeen erreklamazioen ondoriozko edozein kalte, galera eta gastuei (hor sartzen dira zerbitzu sariak eta lege-kostuak) lotutako erantzukizun orotatik eta hor sartzen da, mugarik gabe gainera, lehiaketaren publizitatea eta antolakuntza.

11.11.- Partaideek eta irabazleek salbuetsi egiten dituzte Reebok eta Forum Sport edozein motatako erantzukizunetatik eta ez diete kalterik egingo.

11.12.- Partaideek adierazten dute badutela jarduera fisiko honek ekar ditzakeen arriskuen berri eta adierazten dute, egoera fisiko eta mental onean daudela, aipatutako kirol-jarduera egiteko moduan, eta askatasunez eta haien borondatez hartuko dutela parte.

11.13.- Indarrean den zerga-araudia betez, joko, lehiaketa, zozketa edo ondasun edo zerbitzuen salmenta edo sustapenari lotutako bestelako konbinazioetatik etorritako gauzazko sariak kontuko sarrerei lotuta daude Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga-legeak adierazten duen ehunekoa aintzat hartuta, betiere, sariaren atxikipen-oinarria edo kontuko sarrera 300 euro baino handiagoa bada. Horretarako, oinarri hauetan adierazitako sari-ematea

dagokion kontu-sarrerari lotuta egongo da. Reebokek PFEZ-atxikipenei, edo Ez Egoiliarren Errentaren gaineko Zergako ez-egoiliarrei lotuta berari dagozkion atxikipenak egingo ditu eta Ogasun Publikoari helarazi.

12. DATU BASEA

Arduraduna	Nortasuna: adidas España SAU. Posta-helbidea: Av. María Zambrano, 31, Edf. WTC, Torre Este, 6ª planta, 50018, Zaragoza. Datuen babeserako ordezkariarekin harremanetan jartzeko helbidea: dataprotection@adidas.com
Xedeak eta legitimazioa	2019ko irailaren 12ko ekitaldiko parte-hartzearen kudeaketa. Zurekin jarriko gara harremanetan irabazle suertatzen bazara eta ondoren, berehala, zure datuak suntsitu egingo ditugu. Datuak zure borondatez ematen dizkiguzu eta horrela, baimena ematen diguzu guk datu horiek aurreko puntuan adierazitako xedeetarako erabil ditzagun.
Hartzaileak	Ez dizkiegu zure datuak hirugarren hartzaileei lagako.
Eskubideak	Baimena atzera bota dezakezu, informazio gehiago eska dezakezu edo zure datu pertsonalak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, aurkaratzeko, mugatzeko eta garraiatzeko eskubideak balia ditzakezu. Horretarako, bidali mezu bat arduradunaren helbide elektronikora: info.reebok@reebok.es.